



JAURLARITZAREN AURREKONTU PROIEKTUA

Zerbitzu publikoak, babes sozial sistema eta hauetan lan egiten dugun langileon lan baldintzak gehiago murrizteko proposamena

Jaurlaritzak aurrekontuen proiektuan 2013an gastu publikoa 1.132 milioitan murriztu du 2012 urteko gastuarekiko, %10,8ko jaitsiera.

Horrek zera esan nahi du: osasun, hezkuntza, babes sozial, eta era guztietako politika publikoetarako **iaz baino askozaz ere diru gutxiago** dago.

Osasun zerbitzuetan iaz baino %3 gutxiagoko inbertsioa dago, hezkuntzan iaz baino %9 gutxiago eta gizarte zerbitzuetan iaz baino %18,9 gutxiago; hala, jendartean sortzen dugun aberastasunetik gero eta diru gutxiago bideratzen da jendartearen bizi baldintzak hobetzeko zerbitzu publiko eta babes sozial sistemara, hau da, BPGaren gero eta zati txikiagoa.

Urkulluren gobernuak **bi gezur handi** zabaldu ditu aurrekontu hauen gainean:

1. Aurrekontu hauetako diru sarrerak eginak etorri zaizkiola eta PNVk hauen gainean ardurarik ez dutela izan, eta diru sarrera horien arabera murrizketak egin behar izan dituztela. Gezurra: diru sarrera altuagoak izan ahal izateko zerga sistema aldatzea beharrezkoa da, gehien dutenei gehiago kentzeko, PNVk behin eta berriz oztopatu du horretarako aukera.
2. Aurrekontuetako murrizketa honek oinarrizko zerbitzuetan eraginik ez zuela izango. Gezurra: osasungintza, hezkuntza, etxebizitza eta gizarte politikaetako gastuek behera egin dute.

Aurrekontu hauen ondorioz, **zerbitzu publikoak eta baita langilego gastuak ere murriztuko dira**. Zehazki langilego gastua %2,5ean murriztu dute, hala, soldatak izoztu egiten dira, Itzarriko dirua desagertu egiten da, lanaldia handitu egiten da, edota ordezkapenak egiteko diruari dagokionez esaterako, ez da diru gehiago aurreikusten, ordezkapenak egiteko instrukzio murriztaileari eutsi egingo diotelako seinale.

Gure zerbitzu publikoen sistemak, oinarrizko giza eskubideen benetako berma izango bada, asko garatzea du oraindik: Europako herrialderik aurreratuenetan dauden zerbitzu publikoen sistemetak, eta haietan BPGarekiko **egiten den inbertsio sozialetik oso urrun gaude**, eta horren ondorioz esaterako haurreskolen eskaintza ez da ez unibertsala ezta doakoa, adineko pertsonen autonomia eta bizi kalitatea bermatzeko zerbitzuak ezta, ... eta larriagoa dena, azken urte hauetan botere publikoek hartutako neurri eta Espainiar Estatuak ezarritako erreformak zerbitzu publikoen sistema eraisten ari dira, aurrekontuok honen froga argia dira.

Baina alternatiba egon badago, sistema fiskalaren erreforma egin gehien dutenek gehiago ordaindu dezaten, eta hala, aberastasunaren banaketa bultzatuko duen sistema fiskal justua egiteaz gain **aurrekontu publikoek eskubide sozialen sistema publiko sendo bat eraikitzeko** beharrezko diru horniketa izango dute. Langileok alternatiba honen alde borrokatu behar dugu, horregatik datozen egunetan aurrekontu hauen kontra protesta egiteko egingo diren deialdi guztietan parte hartzera dei egiten dizuegu.

Zerbitzu publikoen gaineko azterketa orokor labur hau behin eginda jarraian EITBren gaineko azterketa zehatza aurkezten dugu.



EITBren AURREKONTUAK

Lehenengo eta behin, Eusko Jaurlaritzak 2013rako aurkeztu duen EAerako aurrekontu orokorren egitasmoaren murrizketaren batez bestekoa baino askoz ere handiagoa dela EITBri egin diona. Horren benetako arrazoia jakiterik ez badugu ere, zalantzak eta kezak sortzen dizkigu EITBren zein sektorearen etorkizunari begira. Ezbairik gabe ez goaz erresistentzia edota atzeratze hutsera, **erabateko birmoldaketara baizik**. Aurrekontuak luzatuko balira gaitzerdi (lerrook idazteko garaian parlamentuan oraindik eztabaidatu gabe daude), baina kasu horretan ere ez dugu uste zuzendaritzak iazko gastu maila ere mantenduko lukeenik. Langileon esku ere badago birmoldaketarik egon ezkeror norabide onean eta murrizketarik gabe egin dadin.

Beste detailtxo bat, aurrekontuok **EITBko Administrazio Kontseiluak ez dituela onartu**. Kideen bi herenak behar dira tramite hau pasatzeko eta zuzendaritzak ez du gehiengo hori lortu eta halaxe bidali ditu onartu gabeko aurrekontuak Jaurlaritzara, Parlamentuak onar ditzan. Detailtxo honen barruan bi kontu, Administrazio Kontseiluan LABen izenean parte hartzen duen kideak ezezkoa eman diola; eta EITBko sorrera legearen arabera bai egiturako langileria zein soldaten igoera estamentu honek ere onartu behar dituela.


EITB TALDEA, datu orokor batzuk

Aurreratu bezala, 2.012ko aurrekontuekin alderatuta murrizketa **44 milioikoa (%26'53 beraz)** da. Zuzendaritzak eta Jaurlaritzak askoz txikiagoa dela defendatu nahi izan dute, baina trikimailuekin, iazko eta aurtengo aurrekontuak alderatu baino, aurtengo aurrekontua iazko gastuekin alderatu baitute. PSEren joerari buelta eman ordez sekulako ostikada eman diete aurrekontuei, eta iazko 165 milioietatik 121era jaitsi dituzte. **2009ko datua hartuta jaitiera 68 milioikoa da (%36a!)**. Inbertsioen atala ere oso kezagarria, koadroan ikus daitekeen bezala.

USTIAPEN AURREKONTUAK

	2.007	2.008	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013	aldea vs:	
								2012	2009
EITB Taldea	170.144.123	175.905.147	190.255.801	179.211.929	177.550.191	165.622.628	121.687.598	%27	%36
EITB	121.906.645	136.302.356	150.380.015	146.897.379	141.218.168	135.419.869	109.353.959	%19	%27
ETB	131.323.020	140.993.923	154.297.344	144.527.106	140.178.113	134.082.172	96.478.823	%28	%37
EI	17.856.349	19.407.653	19.955.649	19.128.216	21.495.623	22.454.478	20.693.810	%8	-%4
RV	4.076.119	4.301.957	4.343.596	4.259.365	4.285.763	4.382.941	4.030.004	%8	%7
EITBNET	4.500.000	5.269.096	5.532.550	5.382.550	5.896.023	5.527.523	3.812.485	%31	%31

Ustiapen aurrekontuak



INBERTSIOAK – FINANTZAZIOA

	2.010	2.011	2.012	2.013
EITB Taldea	10.097.736	10.000.000	8.000.000	4.000.000
EITB	4.160.000	4.160.000	3.200.000	1.000.000
ETB	9.570.000	9.695.000	7.600.000	3.850.000
EI	200.000	115.000	30.000	20.000
RV	130.000	120.000	150.000	30.000
EITBNET	197.736	70.000	120.000	50.000

Soldaten inguruan berriro izozketa datorkigu langileoi, Zuzendaritzak prestatutako aurrekontuek hala jasotzen dutelako. **Zuzendaritzarenak berriz ez, %0'53a igotzen**

baitituzte euren aldetik: hain zuzen ere Zuzendari Orokorrena iazko 85.235 €tik aurtengo 85.639ra.

2.010eko %5eko murrizketaren dekretuaren helegitearen ebazpena Auzitegi Gorenak laster kaleratuko omen duela eta, eragin galanta izan dezake aurrekontuetan, eta aurreikuspen hau ez dago jasota, iazko gabonetako paga bezala. Gero geuri botako ote digute murrizketa gehiagoren beharraren errua?

«*Ordainsariei eutsi eta plantilla gutxitu*» egingo dela aipatzen da. Taldean orokorrean 6 langileko plantilla murrizketa proposatzen badute ere, enpresaz enpresa aztertuta ez da zehaztasunik agertzen. Garbi ikusten duguna **behin-behineko langileek jarraituko dutela kaltetuenak izaten**, nahiz eta kaleratze hauei “ez traumatikoak” eufemismoarekin deitu. Enpresa publikoa izanik eta aukera paregabea edukita, hau ez da hain zuzen ere Jaurlaritzak aipatzen ohi duen “lanpostuen sorrera” estrategikoa.

EITBren finantzazio iturri nagusietako bat, aurrekontuekin eta publizitatearekin batera, Programa Kontratua dela defendatu izan du urtero urtero EAJk. Orain «*Bidezkoa bada, aurrekoa luzatzea*» proposatzen dute. **Noraeza eta estrategia falta** sumatzen da zantzu honetan ere.

Kanpoko zerbitzuei ere %25ean murrizten zaie aurrekontua. Lan baldintza kaskarrenetan diharduten langileen etorkizuna oso beltza margotu dute. Sektorea garatzeko koprodukzioetarako diru sailak legeak ezartzen duen ustiapen aurrekontuaren %6aren erdira hurbildu soilik egiten da, euskal kulturarentzat kalte handiagoa beraz.

EUSKAL TELEBISTA

ETB Nafarroan hartu ahal izatea oraindik airean, eta aurrekontuetan ez da diru-sailik aurrekusi. ETB1 eta ETB2 soilik aipatzen dira, ETB3k haurren heziketarako duen garrantzia ahaztuta ere.

Bereizmen Handiko (HD) egitasmoa dela eta, **euskararentzat soilik %60aren** presentzia bermatzen da. ETB1i hauspo pixka bat emango balio ere, eztabaida zahar pare bat berriro piztuko dela aurrekusi daiteke erraz. Euskarak behar duen tamainako apustutik urrun jarraitzen dugu.



Bikoizketa gastuak 2 milioi t'erditik erdira jaisten dira, eta eragin itzela izango du sektoreko langile horiengan. Bestetik, koprodukzioetarako saila zeroraino erortzen da erabat. 2.009an aurrekontua milioi erdikoa zen, eta iaz 55.000ko miserian utzi zuten. Sektorearentzat aurrekontu hilgarriak.

IRRATIAK



Irratiei begira oso deigarria **uhin ertainei** ematen zaien aizkorakada. Errentagarritasun ekonomikoa sozialaren gaintik bakarrik ez, baizik eta ikuspegi bakarra. Batez ere Araba eta Gipuzkoako herri ugartan irrati publikoak soilik AM bidez har daitezke, orografia dela arazo.

Arabako jendartea asko aldatu da EITBren sorreratik, zer esanik ez euskararen ezagutza, erabilera, eta euskarazko medioen beharra. **Gasteiz Irratiak** ez dio erritmoari jarraitzen, eta **euskararen presentzia areagotzea ez** da aurreikusten.

EITBNET

EITBNET sortu zenetik LABi beti kezkatu izan zaio egituraren estrategia: **“ez estrukturala”** bezala jasotzen den kudeatzaileez osaturiko 20 kideko egitura minimoa du, eta lanaren oso zati handi bat azpikontrataturako M4Fko 60 bat langilek egiten dute. Kontrata horretan dagoeneko kaleratzeak ematen hasi dira, eta askoz ere gehiago aurreikusten dira. Aurrekontuetan *«beste enpresa batzuek egindako lanak»* delako epigrafea iazko ia hiru milioiei herena kentzen zaie. Azalpenak soberan daude.



«Plantilla ez estrukturala 20 langilekoa» dela dio, eta ez dugu ulertzen zergatik ez den dagoeneko egiturakotzat hartzen. Idazkeraren arinkeria hutsa ala proiektuari ez zaiola sendotasunik eman nahi?

<http://eitb.labsindikatu.org>

LABen PROPOSAMENAK

Hau guztia, eta Eusko Jaurlaritza aurrekontuak parlamentuan onartzeko negoziatioetan nori begira dagoen ere ikusita, egin ditzakegun proposamenak non geldituko diren badakigu. Halere langileok iparra garbi edukitzea ezinbestekoa dela deritzogu, eta gure gogoeta konpartitu nahi dugu zuekin. "Burutik eginda gaudela", "botatzen ari duenarekin halakorik"... eta halako deskalifikazioak inoiz baino tokitik kanporago daude. Dirua egon badago, baina gastu eta diru-bilketa politika egokien bidez (aurrekontuak eta fiskalitatea alegia) diru gehiago egon daiteke. Hain zuzen ere honelakoetan argiago ikusten dugu langileok zein den bide zuzena.

1. Eros-ahalmena berreskuratu:

Horretarako soldaten diru-sailak egokitu, eta langileoi Jaurlaritzak kendutakoa itzultzea.

Kalitateko enplegu publikoa.

2. Enplegua egonkortu eta sortu:

EITB enpresa publiko moduan ahalmena du, borondaterik badago. Aurrekontuetan jasotzen diren zifrak ez ziren zertan aldeztatik ezarritako muga izan behar.

Martxan dauden Enplegu Eskaintzak behin amaitutakoan, egiturako plantillak berriro aztertu eta deialdi publikoak berriro egin.

EITBNETeko oraingo langileria egiturakotzat hartu, eta langile beharrak zuzenean kontratatu eta hauen izaera estrukturala aztertu.

Lan poltsak behingoz adostu eta aitzakiarik gabe sinatu.

Langile ugari dago prekaritatean azpikontratatura, eta ez litzateke aitzakiarik egon behar estruktural diren horietako lan asko zuzenean kontratatuzeko.

3. Sektorea indartu:

EITBri murriztu gabe badago kulturaren sektore estrategikoa den ikus-entzunezkoari laguntzerik. Zalantzarik gabe EITB motorea izan behar da, eta lankidetzak sustatu egin behar dira.

4. Euskarari behar eta merezi duena eman. Erdarak baditu bere kateak dagoeneko.

Euskarazko eta erdarazko eskaintzak aurrekontu berezituarekin, jarraipen egokia egin ahal izateko.

ETBHD euskara hutsez

Gasteiz Irratian presentzia areagotu.

5. ETBko albistegiak fisikoki banatuta, euskararen eta informazioaren onerako

LABen aldarrikapen zaharra jada, euskarazko eta erdarazko albistegiak lantoki ezberdinetan egitea, agenda propioekin.

6. Uhin ertainak mantendu

Euskara Herri osoan bermatu behar da komunikabide publikoaren presentzia.